

Wi-Fi estaldura Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren Garaia campusean

2007/11/16

Azaroak 12tik, Garaiaiko campusari Wi-Fi estaldura eman zaio, departamentu, aula eta laborategietan. Gainera, Iturripeko campusean estaldura hobetu da seinale ahula heltzen zen lekuetan.

Wi-Fi sarearekin eta haririk gabeko konexiodun eramangarri batekin, bai ikasle eta bai langileak, Informazio Sistemak eskeintzen dituen baliabideak erabili ahal izango dute campuseko edozein lekutatik, bai Internet, Intranet eta beraien fitxategietara.

Wi-Fi logodun kartelak jarri dira campuseko hainbat lekutan. Kartelan adierazten den telefono zenbakian, sarearekin zerikusia duen arazoak adierazi daitezke. Intranetan sare desberdinak nola konfiguratu azaltzen duen eskuliburua jarri da.

Aurki, MGEP EDUROAM proiekturari atxikituko da. EDUROAM (Educational Roaming) Wi-Fi espazio bakar bat eratzea helburu duen, nazioarteko proiektu bat da. Bere xedea, proiektuan parte hartzen duten instituzioen artean Wi-Fi sarbidea erraztea da. MGEP-eko langile edo ikasle batek EDUROAMi atxikitutako instituzio batean aurkitzen denean, bertako sarera konektatu ahal izango da MGEP-eko erabiltzaile izena eta pasahitza erabiliz. Era berean MGEP-eko erabiltzaile ez direnak baina EDUROAMeko instituzio batekoak direnak MGEP-eko WiFi zerbitzua erabili ahal izango du, bere instituzioaren jatorrizko erabiltzaile izena eta pasahitzarekin.

